

# Hezitazileen Sentikortasuna Garatzeko Programa (SGP)

Alexander Barandiaran, Elena Lopez de Arana, Alexander Muela, Iñaki Larrea eta Joserra Vitoria

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko HAZITEGI ikerketa-taldea

## Zer da Hazitegi?

Hazitegi da Haur Hezkuntza ikertzen ari den Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko talde bat. Talde honetan, ipar daukagu haurren garapen osasuntsua, batez ere, adin goiztiarretan. Horren harira, aztergai ditugu haurren ongizatea bermatzeko baldintzak. Horregatik, betiere haurra ipar dugula, bere testuinguruak aztertzen dihardugu, jakiteko zerk eragiten duen haurraren gain, testuinguruetan hobekuntzak ere planteatzen ditugu, modu horretan, haurren garapen osasuntsua bultzatzeko baldintzak izateko.

Hazitegi taldeak haurren ongizateari begira, bi testuingurutan kokatu izan du bere jarduna: familietan eta eskoletan. Azken batean, biak dira garrantzitsu haurren garapenerako. Jardun honetan, hainbat aldagai aztertu eta jorratu ditugu:

- Haurri dagokionez, bere segurtasuna, ongizatea, esplorazioa, inplikazioa, berdinkideen arteko harremanak...
- Familiari dagokionez, ezaugarri orokorrak, parentaltatea edo guraso-lana, presentzia eskoletan ...
- Eskolari dagokionez, Haur Hezkuntzaren ezaugarri orokorrak, Haur Hezkuntzako metodologia orokorra, irakaslearen esku-hartzea eta sentikortasuna, espazio eta denboraren antolaketa, estrategia metodologikoak...

Hazitegitik egin ditugun ikerketa guztietatik atera den ondorio nabarmenetarikoa da helduen sentikortasunak duen garrantzia umeen ongizatean eta garapen osasuntsuan. Hori dela eta, sentikortasuna gure aztergai nagusia bilakatu da eta artikulu honen bidez, horren berri ematen ahaleginduko gara.

## Sentikortasuna Garatzeko Programaren oinarri teorikoak

Arestian esan dugun moduan, Hazitegi taldeak erabaki du gaur egun haurrekin elkarrekintzan ari diren helduen sentikortasunean erreparatzea. Baina zer dela sentikortasuna? Hurrengo lerroetan azaltzen saiatuko gara. Gaur egun, gizakiaren garapenaren teoria ezberdinetatik indar gehien duena Atxikimenduaren Teoria dela esan genezake (Bowlby, 1969). Nazioarte mailan publikatzen diren aldizkari zientifikoetan, teoria horretan oinarritzen diren ikerketak dira gehienak. Komunitate zientifikoan, gaur egun, denok balioesten dugu zerbait da.

Teoriaren arabera, gizakiak gizaldiz gizaldi genetikoki transmititu ditu hainbat jokabide konplexu, testuingurura egokitzeko baliagarriak izan zaizkionak. Horien artean, garrantzitsuenak dira atxikimendu-jokabidea, esplorazio-jokabidea eta beldur-jokabidea.

Atxikimendu jokabideen bidez, umeak helduarekiko gertutasuna lor dezake bere behar emozionalak -garrantzitsuenak- eta fisikoak ase ahal izateko eta modu horretan bizirauteko. Azken finean, berezkoak diren jo-

kabideen izatea horretan datza, bizirauteko estrategiak dira.

Esplorazioaren bidez, umeak bere testuingurua eza-gutuko du, jakin-mina azalduko du ondoan duen espazio, material eta gauzekiko. Baina testuingurua maiz arriskutsua da eta horregatik, gizakiak esplorazioari fre-noa jarriko zion estrategia ebolutiboa garatu zuen; beldurra, hain zuzen ere.

Umeei heldua segurtasun-iturri modura erabiliko dute testuingurua esploratzeko. Beraz, esan dezakegu umeei beldurra sentitzen dutenean, seguru sentitzen ez direnean, beraientzat esanguratsu den heldua beharko dutela ondoan, segurtasuna emateko, bestela ez baitute esploratuko.

Horrek baldintza garrantzitsu batera garamatza, helduaren erantzunera. Umeei ezin dutenez beraien buruarengan segurtasuna eragin, helduaren erantzunaren menpe geratzen dira. Erantzun horren nolokotasunari esango diogu sentikortasuna. Sentikorrek izango gara umeen segurtasun-, konfiantza-, aitoren-beharrei erantzuten diegunean. Baina zelan egiten da hori? Umeei segurtasuna emateko, lehenengo, ikusi/haute-man behar dugu zer komunikatzen duten euren jokabideen edo seinaleen bidez; horren ostean, haiek egoki interpretatuz (ez da gauza bera pentsatzea “manipulatu egin nahi nau” edo “nirekin jolastu nahi du”); eta azkenik, bere beharra asetzerantz bideratzen den erantzun egoki bat ematea.

Sentikortasunaren azken alderdi honekin lotuta, zehaztapen bat egiteko beharra ikusten dugu. Erantzunaren egokitasuna ebaluatzeko, umeei begira egon behar dugu, eurek esango baitigute erantzuna baliagarria ote izan den euren beharrak asetzeko edo ez. Garrantzitsua da ulertzea umeak ez direla denak berdinak, behar bera adierazteko bide ezberdinak erabiltzen dituztela, eta esku-hartze ezberdinak behar dituztela gure partetik, premiak asetzeko.

Baina hori guztia ez da batere erraza. Zergatik? Ahozko hizkuntzaren bidez ez digutelako adierazten behar horiek dituztela; horrek esan nahi du guk interpretatu beharko ditugula azaleraztan dituzten jokabideak edo seinaleak. Dakigunez, errealitatea jantzita ditugun betaurrekoen arabera interpretatzen dugu. Zein betaurreko jantzi, orduan? Gure betaurrekoak umeen garapenera buruz orain arte eraiki den ezagutzazkoak dira. Hazitegitik, betaurreko horiek partekatu nahi ditugu, geu-

**Umeei segurtasuna emateko, lehenengo, ikusi/haute-man behar dugu zer komunikatzen duten euren jokabideen edo seinaleen bidez; horren ostean, haiek egoki interpretatuz (ez da gauza bera pentsatzea “manipulatu egin nahi nau” edo “nirekin jolastu nahi du”); eta azkenik, bere beharra asetzerantz bideratzen den erantzun egoki bat ematea**

re umeen ongizatea bermatzeko bidea dela uste dugulako.

Orain arteko ikerketek erakutsi dute heldu esanguratsuen (guraso zein irakasle) sentikortasunak umeen garapenean eragin nabaria dutela (NICHD ECCRN, 2005; Vandell, Belsky, Burchinal, Steinberg, Vandergritt eta NICHD ECCRN, 2010). Beraz, sentikortasuna umeen garapenerako giltza izanik, argi izan dugu gure erroka nagusietako bat zela berau garatzeko bideak topatu eta hezkuntza-komunitatearekin partekatzea.

Baina nondik hasi? Bada, gurean eta nazioarte mailan egin izan diren lanak aztertzen hasi ginen, lehenik. Aurkitu genuena izan zen ez zegoela eskola mailan sentikortasuna garatzeko proposamenik; bai, ordea, familia-testuinguruan. Leideneko Unibertsitatekoekin (Herbehereak) izan dugun harremanaren ondorioz, gaiaren inguruan egin diren ikerketen berri izan dugu.

Bakermans-Kranenburg, Van IJzendoorn, eta Juffer (2003) irakasle ikertzaileek, gurasoen sentikortasuna garatzeko egin diren esku-hartzei buruzko nazioarteko 80 ikerketaren meta-analisisa egin zuten. Ondorio modura aipatu zuten esku-hartze eraginkorrenak ezaguri haiek zituztela: bideo-feedbackean oinarrituta, saio gutxi, jokabideetan arreta, atxikimendu teoriaren markoa. Hori ikusita, beraiek VIPP izeneko programa

**Pentsatu genuen hezkuntza-komunitateari egin ahal genion ekarpena zela eskola-esparruan sentikortasuna garatzeko bideak zabaltzea, adibidez programa eskolara egokituz eta aplikatuz. Hortik, ekimen horretatik, sortu zen Sentikortasuna Garatzeko Programa (SGP).**

diseinatu zuten (Juffer, Bakermans-Kranenburg, eta Van IJzendoorn, 2008) eta bere eraginkortasuna frogatu zuten hainbat talderekin, adibidez, sentikorrek ez ziren amekin, elikadura nahasteak dituztenekin, adopziozkoekin eta jokabide-nahasteak zituzten umeen amekin.

Berlaratu eta programan formatu ostean, pentsatu genuen hezkuntza-komunitateari egin ahal genion ekarpena zela eskola-esparruan sentikortasuna garatzeko bideak zabaltzea, adibidez programa eskolara egokituz eta aplikatuz. Hortik, ekimen horretatik, sortu zen Sentikortasuna Garatzeko Programa (SGP).

Hala egin genuen eta lehenengo, eskola-pilotu batean eta ondoren, hainbat haur-eskolatan, betiere 1-2ko gelaletan. Esperientzia horien bidez, konturatu ginen gaiak potentzialtasun handia zeukala eta aurtengo erronka izan da Haur Hezkuntza osora zabaltzea.

Orain arte, programa soilik irakasle bakar batekin eraman dugu aurrera. Hurrengo pausoa izango da, saioak irakasle batekin egin beharrean, HHko irakasle guztiekin egitea. Baina zeri buruz ari garen jakiteko, azal ditzagun programaren nondik norakoak.

**Sentikortasuna Garatzeko Programaren deskribapena**

Lehenik eta behin, bideoz grabatzen dira irakasleen eta

haurren arteko eguneroko elkarrekintzak. Pasarteak 30-45 minutu bitartekoak izaten dira, hainbat unetan grabatutakoak: sarreran, jarduera gidatuan, aldaketan, atsedenean, garbiketan, jateko momentuan, jarduera librean, psikomotrizitate saioan, eta abar. Bigarrenik, Hazitegikook bideoak aztertzen ditugu eta irakasleekin egin beharreko lana prestatzen dugu.

Ondoren, grabatutako bideo horiek irakasleekin batera ikusten dira, ikusitakoaren inguruan feedbacka emateko. Helburuak ondokoak dira: (1) haurren jokabidea edo seinaleak identifikatzea, (2) interpretazio egokia egitea eta (3) bat-bateko erantzun egokiak ematea; azken finean, horiek direlako sentikortasunaren ezaugarriak.

Lehenengo bi saioetan, haurren mikro-jokabideetan edo seinaleetan jartzen da arreta. Saio horietan, garrantzi handia ematen zaio esku-hartzailearen eta irakasleen arteko harremanari. Euren arteko lankidetzaharremana ezinbestekoa da programaren arrakastarako.

Azkeneko bi saioetan, irakasleen erantzun sentikorretan, hots, egokietan jartzen da batez ere arreta. Hortaz, azpimarratu nahi genuke positiboak direla irakasleei ematen zaizkien bideo feedback guzti-guztiak, kasu batean ere ez dela kritikarik egiten. SGParen oinarrian dago haurren eta helduen gaitasunetan jartzea arreta, inoiz ez ezintasun edo mugetan.

Sentikortasunaren beste muturrean dagoen kontzeptua sarkortasunarena da. Sarkortasunez jokatzeko moduak umeen jokabideak edo seinaleak gaizki interpretatzen ditugunean edo lehenesten ditugunean gure beharrak. Adibidez, janzteko ume batek bere denbora behar du, baina nik ez badut kalkulatu berak behar duen denbora, seguruenik bukatuko dut neuk janzten, korrika eta presaka, momentuari erreparatu barik, begietara begiratu barik, harremanari garrantzirik eman barik... erlojuak agintzen duelako. Horretatik, bideoak aztertzen ditugunean irakaslearen sarkortasuna ekiditeko moduak aztertuko dira.

Gaitegiari dagokionez, programaren esku-hartze gaiak ondokoak dira: haurren esploratze- eta atxikimendu-jokabideen arteko erlazioa, "haurrei hitza ematea", "sentikortasun katea" eta emozioak partekatzea. Horrela, lehenabiziko gaiaren helburua izaten da haurrek segurtasuna noiz eta nola eskatzen duten eta esplorazioa noiz nahi duten identifikatzea. Ondorioz, nahi izaten da helduak trebatzea haurrei egoki erantzuteko edozelako egoeran.



Bigarrenik, “haurren hitz egitea” delako esku-hartze estrategiaren helburua da helduak hitzez azaltzea haurrek egiten dituzten keinu eta hitzik gabeko adierazpenak.

Azkenik, “sentikortasun-katea” eta emozioak partekatzeari dagokionez, helburua da irakasleek argi izatea haurren seinaleak momentuan identifikatu eta erantzun egokia ematearen garrantzia. Katea esaten zaio, haurren seinaleak helduen erantzuna dakarrelako eta, bidenabar, helduen erantzunak haurrengan eragiten duelako. Emozioen partekatzeari gehiago loturik, helburua da haurrek izan ditzaketen emozio negatibo zein positiboak lantzea. Modu horretan, aipatutako prozedura horien guztien bidez, nahi da guraso eta irakasleak nolabaiteko aditu bihurtzea euren haurren inguruan.

Arestian aipatutakoaren ildotik, programaren helburua ere bada helduek atxikimenduaren inguruan duten ideian eragitea. Ondorioz, beraien haurtzaroko esperientziak partekatzeko gonbitea luzatzen zaie azkenean, galdetegi, istorio eta eztabaiden bidez, besteak beste. Aldi berean, programak aztergai dauka beraien haurtzaroko esperientziak zer nola eragiten duten gaur egun guraso edota irakasle izateko. Bizitako esperientziaren inguruan galdetzen zaio irakasleari, hau da, nola sentitu den, baliagarria izan zaion, zertan, zer ikasi duen eta hobetzekoak non ikusten dituen.

Azkenik, programaren arrakastarako behar-beharrezkoa da programaren aplikazioak estandarizatuak izatea (hau da, bide zehatza izatea) baina pertsonalizatuak (hezitzailearen beharretara egokitzeko aukera eskaintzen dutenak).

## **Azkenik, programaren arrakastarako behar-beharrezkoa da programaren aplikazioak estandarizatuak izatea (hau da, bide zehatza izatea) baina pertsonalizatuak (hezitzailearen beharretara egokitzeko aukera eskaintzen dutenak)**

### **Sentikortasuna Garatzeko Programaren aplikazio-tik ateratako ondorioak**

Ondorioen atal honetan, bi testigantza jaso nahi izan ditugu. Alde batetik, Hazitegiko kideek ateratako ondorioak agertzen dira. Baina irudikatzen genuen horrekin ez zela nahikorik izango eta SGP ibilitako irakasle baten testigantza ere ekarri nahi izan dugu, Uxuri Gallastegirena, hain zuzen ere. Azken testigantza hau elkarriketa moduan aurkeztuko dugu.

#### **a) Hazitegiko ondoak**

Sentikortasuna Garatzeko Programaren aplikazioa eta eraginkortasuna ebaluatzeko asmoz, 2010-2011 ikasturtean, 1-2 urteko geletako 7 eskolatan eraman dugu aurrera.

Programan, bi saio mota bereizten dira: batetik, hautatutako une bakoitzeko 30-45 minututako grabazio-saiolak (harrera, jarduera gidatu bat, jarduera libre bat eta psikomotrizitate-saioa); eta bestetik, saio horien inguruko ordu eta erdiko feedbacka. Feedbacka eman aurretik, grabazio horiek Hazitegiko taldean aztertu izan ditugu.

Irakasleekin izandako feedback-saioetatik ondorioztatu dezakegu:

- Irakasleak ezustean harrapatzen zituen ikusteak ez direla konturatzen seinale askotaz. Hala, jokabidea ume bakoitzarengan aztertzean, ohartzen dira zein izatera ezberdina duten umeek eta askotarikoak direla erakusten dituzten seinale horiek.
- Irakasleak ohartu dira hainbat ume ezkutuan geratzen

direla, ez dutela arreta erakartzen; baina bideo-grabaketetan oso argi ikusten da ume horien blokeoa. Ume horiek detektatzen dira eta haien egoeraz hausnartzen da. Irakasleak ondorioztatzera heldu dira irakasleen esku-hartzea funtsezkoa dela haurra egoera horietatik ateratzeko.

- Haurrei aurkeztutako hezkuntza-proposamena nola azaltzen zaien, beraien esku hartzea, gelako posizioak, materialak, eta abarrek haurrengan duten eragina ere aztergai izan dugu. Beraiek hainbat irtenbide proposatzen dituzte praktikan jartzeko, batez ere, arlo metodologikoarekin lotutakoak.

- Azkeneko saioetan, oso argi geratzen da beraien esku-hartzea oso konplexua dela. Ume asko dituzte behar ezberdinekin eta ez da erraza arreta eskaintzea guztiei.

- Saio guztien bukaeran, irakasleei nola sentitu ziren galdetzerakoan, oso ondo sentitzen direla adierazten dute guztiek, nahiz eta zertxobait harrিতa, hainbeste gauza ikusteaz.

Oro har, SGP oso positiboki baloratu dute irakasle guztiek, eraginkorra izan dela eta gauza asko deskubritzen lagundu diela nabarmenduz. Bideo-feedbacka oso aberatsa izan dela esan dute. Giroa oso egokia izan dela ere azpimarratu dute, ez direla inoiz epaituta sentitu eta hori klabea dela. Azkenik, grabaketa guztiak DVDetan ematea asko eskertu dute, aukera ematen dielako eurak patxada gehiagoz aztertzeko berriro bideoak.

#### **b) Uxuri Gallastegiren testigantza**

Uxuri Gallastegik Kurutzia Ikastolan egiten du lan 1-2 urte bitarteko gelan. Sentikortasuna Garatzeko Programan parte hartu zuen Alexander Muelarekin. Horra hor bere testigantza.

#### *Nola sentitu zinen saioetan?*

Hasieran, egia esateko, deseroso. Ez da ohikoa pertsona ezezagun bat izatea gelan grabaketak egiten eta horrek baldintzatu egiten zaitu jardunean. Denbora aurrera joan ahala, erosoago, ordea. Alex bere lekuan mantentzen zen eta ez zen inongo oztopo izaten egin beharrekoak aurrera ateratzeko. Gainera, behin feedback-saioekin hasi ginenean, elkar ezagutzen hasi ginen eta horrek mesede egin zidan. Baita funtzionamendua ezagutzeak ere.

### Umeen jokabideak interpretatzeko baliagarria izan zaizu programa?

Bai, oso. Feedback-saioak egiten genituenean, grabatutako saioak ikusten genituen (zati batzuk, behintzat) eta umeak kanpotik ikustean, gauza askotaz ohartzatzen nintzen. Ume batek izandako haserrea nondik zetorren ulertzeko, adibidez. Nik azkeneko jarrera ikusten nuen bakarrik, baina grabaketari esker, aurretik zerbait gertatu zela ikusten nuen eta haserre horrek arrazoirik bazuela aditzera ematen zidan. Haserreak zein beste egoera asko. Umeek niri zerbait eskatzera hurbiltzen zirenean nire erantzuna zein zen aztertzeke bera ere izan nuen. Eskakizunak askotan afektiboak ziren eta ni ez nintzen ohartzten. Alexek ere asko lagundu ninduen umeak ezagutzen. Berak egoera ugari azpimarratzen zituen bion artean aztertzeke eta lan horren birtartez, jokabide ugari ulertu nituen. Ulertzeaz batera, erantzun egokia eman ahal izatea ere bazetorren.

### Aldatu da umeekiko duzun ikuspegia? Zertan?

Aldatu da, bai. Aurretik esan bezala, gauzak kanpotik aztertzeak beste ikuspuntu bat ematen zidalako. Aipatutako feedback-saioetan, Alexek berak egoera ugari aztertzeke eramaten ninduelako. Askotan, ni ohartzten ez nintzen gauza askotaz konturatzen zen bera edota egindako beste gauza batzuk azpimarratzen zituen positibotzat. Horrek guztiak umeak indibidualki beste sentiberatasun batekin maitatzera eraman ninduen eta aldi berean, ahaleginak egitera talde bezala inor kanpogan gera ez zedin. Laburbilduz, umeen jokabideak ulertzen nituelako.

### Baliagarria izan zaizu zure praktikaz hausnartzeko? Zertaz konturatu zara?

Benetan baliagarria izan da programa. Nire praktikari buruz hausnartzera eraman nauelako guztiz. Nire jarrerak aztertzeke, umeekiko erantzunak, umeen inguruan... Gainera, eguneroko erritmoan sartuta egotean, uste nuen ez nuela gauza astirik hauetan guztietan errepartzeko, eta hori ez da egia, horretaz konturatzen lagundu dit. Nire praktikan gauza asko hobetzeko ditudala erakutsi dit programak. Egiten ditudan gauza positiboak kontzientzia hartzen, adibidez. Gainera, kanpoko pertsona profesional batek zure jardunean gauzak ondo egiten dituzela esateak asko laguntzen du. Nork bere burua maitatzen eta motibaturik lanean jarraitzen. Eraikitzen ditudan lotura afektiboetan dependentsia sortzen dudala ere konturatu nintzen, beraienezako beha-

rezkoa naizela sentitzea behar nuela. Horrek dakarkidan lan guztiarekin, badaukat zer hausnartu.

### Baliagarria zure lana hobetzeko?

Bai, noski! Aurretik esandako gauza guztiengatik. Eroso sentitu izan naizelako. Ulertu ditudalako azalpenak. Adierazteko aukera izan dudalako. Entzuten zidatela sentitu dudalako. Umeen jokabideak ulertzen lagundu didalako. Nire jokabideak hausnartzeko aukera izan dudalako. Lanerako motibatuta sentitu naizelako. Nire lana baloratu eta errespetatu egin delako.

### Zer da gehien harritu zaituena?

Ez nuke zerbait konkretuki esaten jakingo orain. Ustedut ikerketak berak harritu nauela osotasunean. Agian, hain oinarrikoa den sentiberatasun edo sentikortasun kontzeptuak era kontziente batean landu beharrak harritu nau. Horrek duen garrantziaz ohartu beharrak harritu nau.

### Beste prestakuntzekin konparatuta, zer da gehien ezberdintzen dena?

Prestakuntza indibiduala dela azpimarratuko nuke. Norberaren gela eta jardunean zentratzen dena. Ez da soilik teoria. Dena da praktikoa. Egunerokotasuneko lana hobetzen laguntzen dizun prestakuntza da eta ez egunen batean aurrera eraman ahal izango duzun zerbait. Abiapuntua norberaren jarduna da; noski, zer landu nahi den ahaztu gabe.

### Erreferentzia bibliografikoak:

- Bakermans-Kranenburg, M. J., Van IJzendoorn, M. H. eta Juffer, F. (2003). Less is more: A meta-analysis of sensitivity and attachment interventions in early childhood. *Psychological Bulletin*, 129, 195-215. orr.
- Bowlby, J. (1969). *Attachment and loss: Vol. 1. Attachment*. New York: Basic Books.
- Juffer, F., Bakermans-Kranenburg, M. J. eta Van IJzendoorn, M. H. (2008). *Promoting positive parenting: An attachmentbased intervention*. Mahwah, NJ: Erlbaum.
- National Institute of Child Health and Human Development Early Child Care Research Network. (2005). Early child care and children's development in the primary grades: Follow-up results. *American Educational Research Journal*, 42, 537-570. orr.
- Vandell, D. L., Belsky, J., Burchinal, M., Steinberg, L., Vandergrift, N. eta National Institute of Child Health and Human Development Early Child Care Research Network. (2010). Do effects of early child care extend to age 15 years? Results from the NICHD Study of Early Child Care and Youth Development. *Child Development*, 81, 737-756. orr.